

## 20/04 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria  
Xabier Aizpurua  
Ainara Ibañez  
Ana Marta Iriarte  
Ismael Redondo  
Jone Unzueta  
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren otsailaren 6ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan sartzeko hautespenezko prozesurako eta Kidego horietako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko deialdia egiten duen Agindu proiektuari buruz.

### I. AURREKARIAK

Otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, EAEko Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzkoak, bere 16. artikuluan dio lehiaketa-oposizioa izango dela karrerako irakasle funtzionarioak hautatzeko sistema eta lehenik deialdi publikoa egingo dela.

Otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren (zeinaren bidez onartzen baita Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetara sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko araudia eta zeinaren bidez arautzen baita aipatu legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrean jasotako sartzeko behin-behineko erregimena) 3. artikulua dio administrazio publikoek, dagozkien enplegu eskaintzak onartu ostean, deialdiak egingo dituztela aipatu enplegu eskaintzetan baimendutako plazak hornitzeko, uneoro aplikatzekoak diren Funtzio Publikoko araei jarraiki.

2018ko abenduaren 18ko Gobernu Batzordeko Akordioaren -EHAAn argitaratua 2018ko abenduaren 27an- bidez onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere Organismo Autonomoen 2018ko enplegu publikoko eskaintza, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren bigarren eskaintza.

### II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 3 artikulua, azken xedapen bat eta 8 eranskin ditu.

1. artikulua hautespenezko probetarako deialdia egiten du; 2. artikulua espezialitate berriak eskuratzeko prozedurarako deialdia egiten du; eta 3. artikulua oinarriak onartzen ditu. Azken xedapena berraztertze errekurtsoei buruzkoa da.

8 eranskinetan jasotzen dira, hurrenez urren, merezimenduen baremoa (I eta II), irakaskuntzarako titulu baliokideak (III eta IV), gai-multzoak (V), curriculumak (VI), proba praktikoaren ezaugarriak (VII) eta oposizio-faseko probak baloratzeko irizpideak (VIII).

Oinarriak 3 titulutan antolatuta daude. Lehenengo tituluan (*I. Sartzeko prozedura*) alderdi hauek jaso dira: xedea, parte-hartze txandak, plazak eta aplikatzekoa den araudia.

Guztira 1.148 plaza eskainiko dira lehiaketan, espezialitatetan banatuta, eta guztiek izango dute HE2 hizkuntza-eskakizuna.

Hauek dira gainerako kapituluen tituluak:

2. Parte hartzeko baldintzak
3. Parte hartzeko eskaera eta dokumentazioa
4. Onartutako eta baztertutako izangaiak
5. Hautaketa-organoak
6. Oposizio-fasea
7. Lehiaketa-fasea
8. Lehiaketa- eta oposizio- faseak gainditzea
9. Praktika-fasea
10. Karrerako funtzionarioak
11. Ordezkapen zerrendak

II. tituluan espezialitate berriak eskuratzeko prozedura jasotzen da. (17-24 oinarriak)

III. titulua (25 oinarria) datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa da.

### **III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK**

Agindu proiektu honek gehienbat jasotzen du Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegorako LEPari buruzko araudiaren (2018ko otsailaren 27koa) edukia, baina, ikusi dugu zenbait aldaketa egin zaizkiola, hurrengo epigrafean jasota daudenak.

Guztira 1.148 plaza eskainiko dira lehiaketan: 1.021 EAeko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegokoak eta 127 Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegokoak.

Horietatik 550 txanda librerako plazak izango dira, 80 ezgaitasunagatik erreserbatutako txandarako plazak, eta 518 beste irakaskuntza-kidego batera sartzeko prozedurarako plazak, goragoko sailkapen talde batera sartzeko direnak barne.

2018an egin zen etapa horietako irakasleentzako azken lan-eskaintza publikoa, non 174 plaza eskaini baitziren Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoentzat eta 1.337 plaza Bigarren Hezkuntzako Irakasleentzat; 2016ko deialdia Bigarren Hezkuntzako Kidegoentzat bakarrik izan zen eta 577 plaza eskaini ziren.

Jarraian aipatzen ditugu aginduan sartu diren nobedadeak eta enplegu eskaintzen xedeari buruzko hainbat gogoeta, eta ondoren, arauaren artikuluen azterketa egin dugu.

## A.- OINARRIEI EGINIKO ALDAKETAK

Hauek dira aurreko deialdiarekin (2018ko otsailaren 26ko Agindua) alderatuta sartu diren nobedadeak:

- 5.2.2. oinarria. Epaimahaien osaera eta izendapena: oinarri honetan zerrendatu da zeintzuk diren epaimahaietan parte hartzeko salbuespentzat hartuko diren kasuak, bai eta lizentzia, baimen edo aldi baterako ezgaitasunekin lotutako dispentsa arrazoiak.

Horrez gain, salbuetsi egiten dira 2020-2021 ikasturtean zuzendaritza-karguak betetzeko aukeratuak izan diren pertsonak.

- 7.1.2.1. oinarria. Programazio didaktiko bat aurkeztea: edukiaren arloan, eta zehazkiago, aniztasunari erantzuna emateko atalean, espresuki sartu dira gaitasun handiak dituzten ikasleak, eta gaineratzen da hainbat estrategia jasoko direla programazio didaktiko hori ebaluatzeko. Formari dagokionez, zehazten da gutxienez 40 eta gehienez 60 orrikoa izan behar duela (DIN-A4 formatuan eta alde bakarrean idatzita), eta ezabatu egin dira aurreko deialdietan eskatzen ziren gainerako baldintza formalak.
- 7.1.2.2. oinarria. Unitate didaktiko bat prestatzea eta ahoz azaltzea: hainbat zehaztapen sartu dira unitate didaktikoaren prestakuntzari buruz: “lortu gabeko helburuak errekuiperatzeko estrategiak –halakorik balego- eta unitate didaktikoa ebaluatzeko prozedurak. “

Bi paragrafo erantsi dira hainbat xehetasunekin Hezkuntzako Orientazio espezialitatearentzat eta Lanbide Heziketako espezialitateentzat.

- 7.1.2.3. oinarria: Bigarren probaren garapena. Aldatu egin da denboren banaketa, erabakitzeke marjina utziz izangaien banaketa egitean.
- 7.4.1. oinarria: Lehenengo probaren kalifikazioa (A eta B zatiak): aldatu egin da zatien haztapena. A zatiaren kalifikazio haztatua kalkulatzeko: eskuratutako kalifikazioa  $\times 0,7$  (lehen 0,6).

B zatiaren kalifikazio haztatua kalkulatzeko: eskuratutako kalifikazioa  $\times 0,3$  (lehen 0,4).

- 7.4.1.2. oinarria: Bigarren proba: A zatiari (programazio didaktiko baten ahozko aurkezpena eta defentsa) dagokionez, alderdien haztapena (idatzizko dokumentuak % 40 eta ahozko defentsak % 60) desagertu egin da:
  - 10.1.2.1. oinarria: izangaiak ordenatzea. Idazkera aldatu da, zehaztuz zeintzuk diren berdinketa gertatzen denean egin beharreko gaitasun-proba osagarriaren ezaugarriak.
  - 10.3.3. oinarria: hautatuak izan diren ordezekoak: zehaztapen gehiago ematen dira jakiteko pertsona horiek noiz pasako diren hautatuen artera.
  - 11.1. oinarria: Dokumentuak aurkeztea: ez da aurkeztu beharko osasun egoera ziurtatzen duen mediku-ziurtagiririk, nahiz eta posible den praktika-fasean mediku-azterketak egitea.
  - 13. oinarria: Praktika-fasearen ezaugarriak eta ebaluazioa: praktika-fasearen iraupenari buruzko xehetasunak sartu dira, adieraziz ikasturte batekoa izango dela; orobat ezarri dira praktikak egiten ari direnak ebaluatzeko gutxienekoak, eta murrizketak edo atzerapenak eskatzen direnerako irizpideak.
  - 13.3. oinarria: Praktika-fasean, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak eskatu ahal izango du (kalifikazio-batzordeak proposatuta) praktiketako funtzionarioei **mediku-azterketak** egitea, horrela egiaztatzeko betetzen dituztela irakasle-lana modu egokian garatzeko behar diren baldintza fisiko eta psikikoak.
  - 16. oinarria. Ordezkoen zerrendak: aurreikuspen berri bat gehitu da, zerrenda horietan puntu gehiago emateko hautaketa-prozesuko oposizio-fasea gainditu duten pertsonen.
  - I. Eranskina. Merezimenduen baremoa. Argitalpenen balorazioari buruzko xehetasunak sartu dira (liburu, aldizkari edo itzulpen baten balorazioaren puntuazioa bereizita): egiaztagiriak eta zeintzuk diren barematu ezin diren argitalpenak.
  - II. Eranskina: Goragoko maila batean sailkatuta dauden irakasleen beste kidego batzuetara sartzeko prozedurarako merezimenduen baremoak
- I. 2 (“Berariazko funtzioak betetzea eta ebaluazioa”) atalean puntuazio gehigarri bat sartu da zuzendaritza-karguetan eginiko lanaren balorazio positiboagatik.
  - Hautaketa-prozesuetako epaimahaikide izateagatik puntuazioa handitu egin da 0,050etik 0,100era.
  - Argitalpenen balorazioari buruzko hainbat xehetasun sartu dira, bat datozenak I. eranskinekoekin.

- VII. Eranskina: Proba praktikoen ezaugarriak: Hezkuntza-arloko esku-hartzearekin lotutako gaitan, kontuan hartu beharreko alderdien artean sartu da Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoen helburuak aplikatzea (STEAM estrategia, BIZIKASI, IRAKURETA PLANA, ANIZTASUNARI ERANTZUTEA, BIKAINASUNA ETA BERDINTASUNA, KOHEZKUNTZA...).
- IX. Eranskina: Epaimahaiek aplikatu beharreko balorazio-irizpideak argitaratu dira: hainbat aldaketa egin dira koherentzia mantentzeko VII. Eranskinean eginiko aldaketekin.

**Kontseiluaren iritziz, sartutako aldaketek hobetu eta arindu egiten dute prozedura.**

## **B.- GOGOETA OROKORRAK**

Kontseiluak behin baino gehiagotan adierazi du kezkatuta dagoela irakasleak hautatzeko prozedurarekin. 2019ko irakasleen LEPari buruzko irizpena prestatzen ari ginela, Batzorde Iraunkorrea eztabaida handi bat piztu zen lanpostuetara sartzeko sistemari eta berau hobetu beharri buruz, bermatu behar baita profesional onenak sartzan direla hezkuntza sisteman.

Batzorde Iraunkorrek bere ekimenez erabaki zuen gai hau sakonago jorratzen jarraitzea, hau da, beste toki batzuetan egin dena aztertzea eta oinarritzko araudiaren markotik atera gabe, beste aukera batzuk analizatzea. Horretarako, hainbat bileratan landu zen gaia, zeintzuetan parte hartu baitute, orobat, erabakimena duten Hezkuntza Administrazioiko beste pertsona batzuek eta Funtzio Publikoko giza baliabideetako arduradun batek.

Kontseiluak ulertzen du indarrean dagoen legeriak mugatu egiten dituela egin beharreko aldaketak txertatzeko aukerak; hala ere, uste du Hezkuntza Administrazioak eta bere arduradunek eztabaida zabal eta sakon bat sustatu behar luketela, alternatiba egokiagoak bilatzeko hezkuntzaren egungo nahiz etorkizuneko erronkei erantzungo dieten irakasle onenak aukeratzeko orduan.

Horregatik, eskuartean dugun arauari eginiko ekarpen zehatzez gain, Batzorde Iraunkorrek hainbat proposamen egin ditu, azalduz nolako prozesua sortu beharko litzatekeen eskaintzen diren postuetarako gaitasun profesional onenak frogatzen dituzten pertsonak hautatzeko.

### ➤ **1.2 oinarria**

**Kontseiluak begi onez ikusten du lanpostu eskaintza berri hau eta, aurrekoetan bezala, Hezkuntza Saila animatzen du bide horri jarraitzea plantilletako**

**bitartekotasun-portzentajea murriztu arte, horretarako kontuan hartuz ordezkatu beharko den irakasle kopuru gero eta handiagoa, bai eta irakasle profil berriak.**

Hezkuntza Sailak emandako azken datuen arabera, etapa guztietako irakasleen % 20,6 inguru (% 9,45 Lehen Hezkuntzan eta % 33,5 gainerako mailetan) bitarteko langileak dira. Badaude lanean urteak daramatzaten pertsonak, sisteman sartu direnak hautaketa-prozesu bat iragan gabe eta inoiz ebaluatuak izan ez direnak.

Gai honi buruz, Kontseiluak proposatzen du beharrezkoa izan dadila irakaskuntza-kompetentzia neurtzen duen gutxienez proba bat gainditzea, beste lanpostu batzuetako (administrazioko teknikariak, ertzaintza, udaltzaingoa...) ordezkapen zerrendetan sartzeko egiten den bezala; baita ere bitarteko langileentzat beharrezkoa izan dadila oposizioetara aurkeztea, beste autonomi erkidego batzuetan egiten den moduan. Gainera, ezinbestekoa da irakaskuntza-lana zorrotz ebaluatzea.

**Kontseiluak uste du langileen premien epe ertain eta luzeko plangintza bat egin behar dela, aipatutako faktore guztiak kontuan hartuko dituen.**

### ➤ *3.1.1 oinarria*

Deialdiak aukera ematen die hautagaiei espezialitate bat baino gehiagotara aurkezteko, baina praktikan eskubide hori mugatzen du, aipatuz espezialitate desberdinetarako probak batera deitu ahal izango direla.

**Kontseiluak eskatzen du eskubide hori bermatzeko lehenago iragarri behar direla azterketen datak.**

### ➤ *V. Kapitulua. Hautaketa-organoak*

Beharrezko zorroztasunarekin eta modu justuan bermatu behar da aukeratutako epaimahaikideak profesional onak, konpetenteak eta konprometituak direla, itzal handiko ibilbide profesional arrakastatsu bat dutenak eta eman zaien lan horretarako ongi prestatuak.

**Uste dugu beharrezko dela irizpide berriak garatzea epaimahaikideak aukeratzeko, horrela bermatzeko konpetenteak direla eta ongi prestatuta daudela, eta epaimahaia konpentsatuta dagoela. Ulertzen dugu ausazko zozketek ez dutela bermatzen epaimahaikideen kalitatea, eta norbere borondatez aurkezteak ez duela bermatzen pertsona hori egokia denik epaimahaikide izateko.**

Agian horretarako konponbidea izan liteke zozketa bat egitea prestakuntza onagatik edo lan ibilbide onagatik (pedagogia edo psikologia titulazioa, etengabeko

prestakuntza, berrikuntza proiektuetan parte hartzea, irakaskuntzarako konpromisoa, e.a.) alde aurretik aukeratuak izan diren pertsonen artean.

Aurrera egiteko hautaketa-prozesu eraginkorragoak lortzeko bidean, proposamen hauek egiten ditugu:

- Epaimahaietan parte hartu behar dute Ikuskaritzako, ikastetxeen zuzendaritzetako zein aholkularitzetako pertsona egokienez, eta balio profesional aitortua duten irakasleek.
- Poltsa bat sortu behar da, hautaketa-teknikei buruzko prestakuntza duten eta antolatzen diren prozesuetan parte hartuko duten langileez osatua eta, gainera, langileen aukeraketan espezialistak diren langileak ere behar dira.
- Epaimahai gutxiago sortu daitezke, baina dedikazio handiagoa dutenak, baldin eta jarduera hori ikasturte osoan egiten bada. Horrela bermatuko da epaile arteko fidagarritasuna, hau da, ebaluatzaileen arteko akordio gradua, eta horrela ziurtatuko da, orobat, pertsona konpetenteenak daudela epaimahaian.

#### ➤ 5.2.2. oinarria. Osaera eta izendapena

Seigarren paragrafoan dio **gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen** ordezkariak orekatua bermatu behar dela.

*Gaitasun eta prestakuntza egokia, behin eta berriz esan dugun bezala, irakaskuntza bikaina helburu duten aldagai guztietan.*

**Kontseiluak uste du zozketa bidez zaila izango dela gizon eta emakumeen ordezkariak orekatua bermatzea, salbu eta horretarako prozedura zehatz bat ezartzen ez bada. Bestalde, gizon eta emakumeen presentzia oso desberdina da espezialitatearen arabera, beraz, irizpideak ezin du berbera izan kasu guztietan.**

#### **- Epaimahaietako prestakuntza:**

Nahiz eta epaimahaietako prestakuntza ez dagoen jasota agindu honetan, uste dugu funtsezkoa dela hautaketa-prozesuan zorrotz jokatzeko.

Azken deialdietan ikuskaritzak aukeratu ditu epaimahaietako zuzendariak, zeintzuek 2 asteko prestakuntza bat jaso baitute, oso ongi baloratua izan dena.

Zorroztasunez ebaluatuko bada, beharrezkoak dira irizpideak, prestakuntza espezifikoak eta esperientzia profesional baliozkotu eta aitortua duten pertsonak. Irakasleen adinaren ondorioz, datozen urteetan hautaketa-prozesu asko egin beharko

dira, eta prozesu horietan parte hartzeko prestakuntza eta esperientzia duten profesionalen poltsa bat beharko da.

**Horregatik, kontseiluak uste du epaimahaiko kide guztiek jaso behar dutela prestakuntza, eta aurrea hartu behar zaiela etorkizuneko enplegu-eskaintzek planteatuko dituzten premiei.**

➤ **5.10. oinarria, kalte-ordainak eta dietak jasotzeari buruzkoa.**

Nahiz eta dietak zehaztuta dauden kalte-ordainen dekretuan, eta parte-hartzea merezimendu gisa baloratzen den leku-aldatze lehiaketetan, uste dugu aitortza hori ez dela nahikoa.

Konpentsazio ekonomikoa ez da nahikoa epaimahaikide (gorago aipatutako irizpideen arabera hautatua) izateari balioa eta izen ona emateko. Horregatik proposatzen dugu alternatibak ematea kide horien garapen profesionalerako, adibidez, denbora eta aukerak prestakuntza jasotzeko.

Gainera, proposatzen dugu epaimahaikide izatea izan dadila merezimendu garrantzitsu bat beren espediente profesionalean.

➤ **VI. Kapitulua. Oposizio-fasea**

Hautaketa-probak egiteko argi eta garbi definitu behar da zein den egungo nahiz etorkizuneko ikasleen premiei eta gizarte konplexu eta anitz batek planteatzen dituen erronkei erantzuteko behar den irakasleen profila. Era berean, ongi jakin behar da zein ekintza garatu behar dituzten irakasleek irakaskuntza-lana arrakastaz egiteko orain eta gero.

Horregatik, hautaketa egitean, izangaiak garatuko lukeen lanaren aurreikuspen bat egin behar da, beragan antzeman daitezkeen jokabideetan oinarrituta. Horrezaz gain, baita ere baloratu behar dira bere ezagutzak, trebeziak, jarrerak eta gaitasunak (izangai bakoitzak frogatu behar ditu lanpostuko funtzioak eta zereginak betetzeko dauzkan gaitasunak).

Hautaketa-prozesu eraginkor guztietan bezala, bere lana ongi egingo duela iragartzen duten elementu guztiak detektatu behar dira. Ongi definitu behar da zer egin behar duen, zein konpetentzia behar dituen horretarako, eta nolako gaitasuna daukan trebezia horiek garatzen jarraitzeko.

**Kontseiluaren iritziz, irakasle onenak aukeratu nahi badira, aurrerapausoak ematen jarraitu behar da irakaslearen profila definitzeko eta praktika-faseko irakaskuntza-lana ebaluatzeko.**



Gainera, uste dugu beharrezkoa dela egiaztatzea izangaiek bi hizkuntza ofizialak menperatzen dituztela. **Horregatik proposatzen dugu derrigorrez egin daitezela idatzizko zein ahozko probak, % 50 euskaraz eta % 50 gaztelaniaz.**

Bestalde, oso garrantzitsua da ebaluazio-errubrika eta -irizpide publikoak izatea eta epaimahaiei helaraztea, horrela bermatzeko ebaluazioa ahalik eta garden eta homogeneoena dela.

Azkenik, baloratu beharko litzateke komeni den bestelako probak diseinatzea irakaslearen lana aurreikusten duten funtsezko aldagaiak detektatzeko: adimen testa, nortasun testa, e.a. Horretarako, langileen aukeraketan adituak diren pertsonen deituko zaie, administrazioaren gainerako sektoreetan egiten den bezala.

#### ➤ *7.1.1 oinarria eta VII. eranskina*

Proba praktikoen ezaugarriak 7.1.1.1 oinarrian eta VII. eranskinean daude jasota.

Proba praktikoa fase honetako garrantzitsuenetako bat da. Uste dugu kasu zehatz bat izan behar duela ardatz, ikasgela kudeatzeko gaitasunei buruzkoa eta euskal hezkuntza sistemaren baloreetan eta filosofian oinarritua: gizarteratzea, berdintasuna eta bikaintasuna. Aitzitik, ez lieke halako garrantzirik eman behar guztiz teorikoak diren gaiei eta espezialitatearen ezagutza akademikoari, espezifikoki jasotzen baitira lehen probaren B ataleko gai-multzoan.

**Horregatik proposatzen dugu prestakuntza zientifikoari buruzko paragrafoak ezabatzea, uste dugulako beste probetan ebaluatzen dela, eta proba pedagogiko eta didaktikoekin ordezkatzea.**

**Gainera, ebaluazio irizpideen artean sartu beharko litzateke irakaskuntza-lanerako oinarritzko gaitasun bigunak frogatzeko beharra, hala nola, enpatia, erresilientzia, komunikazioa, gatuzen kudeaketa, erabakiak hartzeko gaitasuna, e.a.**

Bestalde, uste dugu aztertu beharko litzatekeela lehen proba horren ordezkari proba estandarizatu bat jartzeko aukera, automatikoki zuzenduko dena eta kanporatzailea izango dena.

Proba horiek izan litezke aukeraketa anitzeko testak, adituek eginak, zorrotasunez diskrimina ditzaten irakaskuntza-gaitasunak eta Hezkuntza Sailak oinarritzko hainbat gairen inguruan duen filosofia (inklusioa, kultura aniztasuna, genero berdintasuna, bizikidetzeta, aniztasunari arreta eskaintzea, e.a.).

Epaimahaiak lehen aukeraketa horren ondoren osatuko lirateke, izangai kopuruaren, espezialitatearen, lurraldearen eta beste hainbat aldagairen arabera, ahalik eta gutxien izan daitezten eta behar bezala koordinatu daitezten.

Azkenik, berriro eskatzen dugu, epaimahaiek hala proposatuta, web orrian erantsi daitezela kasu praktikoen hainbat adibide, izangaiek behar adinako bermearekin prestatu dezaten proba.

➤ **7.1.1.2 oinarria .- B zatia: gai bat garatzea**

V. eranskinean jasotako gai-multzoari dagokionez, Kontseiluak uste du eguneratu egin behar dela, bat etor dadin VII. eranskinean etapa desberdinentzako curriculumetan ezarritako irakasleen gaitasun-profilekin. Probaren zati honek notan duen portzentajea % 40tik % 30era murriztu da eta begi onez ikusten dugu hori.

Kontseiluak uste du, orobat, garrantzitsua dela gai bat idatziz garatzeko gaitasuna frogatzea. Hala ere, proba praktikoaren kasuan bezala, uste dugu ezagutzak berdin baloratu daitezkeela proba estandarizatu batekin, prozedura elektronikoa, azkar eta fidagarriekin zuzendu daitekeena.

• **7.1.2. oinarria: Programazio didaktiko bat aurkeztea eta unitate didaktiko bat prestatzea eta ahoz azaltzea:**

2. proban programazio didaktiko bat aurkeztu behar da eta unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaldu. Aztertu liteke komeni den galderak egitea.

**Iruditzen zaigu 15 minutu gutxi direla jarrerarekin lotutako alderdiak, alderdi pertsonalak eta bestelako trebezia garrantzitsuak detektatzeko, horretarako galdera egokiak eginez. Horregatik, tarte 30 minutura luzatzea proposatzen dugu.**

Kontseiluak proposatzen du galdera horien ordean elkarriketa erdi-egituratu bat egitea, zeinak adituek eginiko gidoi bat eta ebaluaziorako errubrika bat izango baititu, edo bestela, langileen aukeraketako profesionalen laguntza izatea. Elkarriketa teknikei buruzko prestakuntza eman behar litzateke epaimahaikideei, eta horretarako homologatu. (IVAPen ikastaroak)

Ulertzen dugu idatzizko programazio didaktikoak berez ez duela diskriminazio-balio handirik; agindu honetan, 2018ko LEPean ez bezala, ez da bereizten aurkezpenari ematen zaion puntuazioa eta ahozko defentsari ematen zaiona, eta hori egokia iruditzen zaigu.

➤ **7.3.2. oinarria.- Oposizio-faseko proben garapena**

Oposizio-fasea 2020ko ekainetik aurrera hasiko da. Egun horietan hasiko da epaimahaiaren lana ere, eta horrek eragin negatiboa izan dezake ikastetxeen dinamikan, ikasturteko azken asteak direlako.

Uste dugu epaimahaikideentzat eta, batez ere, ikastetxeentzat hobe litzatekeela tarte luzeagoak uztea fase honetan, ahalik eta eragin gutxien izan dezaten ikasleei eman beharreko arretan.

**Kontseiluak proposatzen du aldatu dadila egutegia eta egin daitezela oposizio-faseak ikasturtean zehar, proben artean tarte utziz –prozesua ez dadin izan hain**

**estresagarria-, epaimahaiak aukera izan dezan prestatzeko eta trebatzeko, eta astia egon dadin fase guztiak egiteko eta deliberatzeko.**

➤ **16. oinarria: oposizio-fasea gainditu duten pertsonen puntuazioa esleitzea.**

“Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetako aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudiak” (2019ko abuztuaren 27ko Agindua) dio 6 puntu emango zaizkiela oposizio-fasea gainditzen duten pertsonen.

Araudi horren aldaketari buruzko 19/03 Irizpenean esan bezala, Kontseiluak uste du positiboa dela oposizioa gainditu duten pertsonak behingoz kontuan hartzea eta baloratzea. Gainera, berriz egin nahi ditu proposamen hauek:

**Oposizioa gainditu izana baloratzea, espediente akademikoarekin egiten den bezala, puntuazio handiagoa emanaz eskuratutako notaren arabera.**

**Oposizioa gainditu dutenak lehen postuan jartzea zerrendan, notaren eta beste merezimendu batzuen arabera.**

➤ **IX. kapitulua. Praktika-fasea.**

Praktika-fasea funtsezkoa da, irakaskuntzarako indukzio fasea delako, non irakaskuntza-konpetentzia ebaluatu baitaiteke praktikan eta beronen aplikazio errealan. Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzu sailburuordearen Ebazpen batek arautzen du fase horren garapena.

**Kontseiluak uste du aurreko deialdietan argitaratutako Ebazpena oso egokia dela, eta ulertzen du oso garrantzitsua dela zorrotz aplikatzea. Horregatik eskatzen du jarraitu eta ebaluatu dadila zein neurritaraino betetzen den ebazpen hori.**

**Era berean, proposatzen du izan daitezela epaimahaiak praktiken jarraipena eta ebaluazioa egiten dutenak eta, beraz, ez daitezela desegin praktika-fasea amaitu arte.**

Nahiz eta praktika-fasea kanporatzailea den, gaur egun tramite huts bihurtu da, fase horretan sartzen diren izangai guztiak gainditzen baitute. Horregatik gomendatzen da ebaluatu dadila zorrotzasunez, eta izan dadila benetan hautatzailea.

Praktika-fasean dauden irakasle berrien mentore figura definitu behar da eta balioa eman behar zaio. Pertsona horrek dedikazio egokia izan behar du izangaiei laguntzeko eta aholkuak emateko indukzio-prozesuan zehar, eta aitortza egin behar zaio bere lanari.

Prestakuntza-plan espezifiko bat egin behar da indukzio-prozesuetan parte hartzen duten irakasle-mentore guztientzat. Taldeko *coaching* teknikak lagungarri dira talde-

lanaren inguruko gaitasunak eta bestelako gaitasun pertsonal eta profesionalak garatzeko.

➤ **VIII. Eranskina: epaimahaiek oposizio-faseko probak kalifikatzeko aplikatuko dituzten balorazio irizpideak**

Uste dugu oso positiboa dela balorazio-irizpideak deialdian argitaratu izana, bai eta Kontseiluaren iradokizuna (beharrezko errubrikak egin eta epaimahai guztiei helaraztea, horrela bermatzeko ebaluazioa gardena eta berdina dela epaimahai guztietan) 7.4 oinarrian jaso izana. Halaber, hainbat erreferentzia egin zaizkie Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoei, eta hezkuntzako araudiak bere baitan hartzen ditu irakurketa gaitasuna hobetzeko estrategiak, STEAM pentsamenduaren inguruko estrategiak...; gainera, gaitasunen artean sartu da bizikidetzako gaitasuna eta hori oso positiboa dela uste dugu.

**Halere, proba praktikoaren inguruan esandakoarekin bat etorritz, proposatzen dugu ezabatu dadila probaren beste zati batean baloratzen den ezagutzari buruzko guztia, eta zentratu dadila soilik irakaskuntzako gaitasunak neurtzen.**

➤ **Lehiaketa-fasea**

Deialdi honetako merezimenduen balorazioan, funtsean, 276/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa jasotzen da, eta horregatik, irakaskuntza ofizialetan lortutako merezimenduak bakarrik hartzen ditu kontuan irakaskuntza eta prestakuntza arloko esperientzia aztertzean.

Zati honen garrantziagatik (% 40) zaila da prestatutako pertsonak zerrendan sartzea aldeztetik esperientziarik ez badute.

Hezkuntza Sailak sindikatuarekin lortutako akordioak gorabehera, Batzorde Iraunkorrek uste du bitarteko irakasleentzat derrigorrezkoa izan beharko litzatekeela eskaintzen diren LEPetara aurkeztea.

Azkenik, Batzorde Iraunkorrek uste du ondoko hauek ere garrantzitsuak direla irakaskuntza-lanaren garapenerako eta euskal hezkuntza sistemaren kalitatea segurtatzeko:

- Irakasleen ebaluazioa.
- Funtzioak une honetan definitzea, ikasleen eta gizartearen premiekin bat etorritz.
- Hasierako prestakuntza unibertsitateekin batera lantzea, eta etengabeko prestakuntza berrikustea laguntza-zerbitzuetan eta unibertsitatean.
- Irakaskuntza-lana eta bere kalitatea kontuan hartzea, eta, esperientzia urteak meritu gisa aurkeztean, ez baloratzea soilik postuan igarotako urteak.



Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2020ko otsailaren 7an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: Nélida Zaitegi

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA